

Jarrera koerentearen gogortasuna

«Gizon ona zen, gizatiarra, bihotz handikoa, mediku on eta erakargarria, guztiei laguntzeko prest, elkarrizketarako egokia...»


Santi hil ondoren, behin eta berriro errepikatu dizkigute holakoak, barrikadaren bestekaldetik batez ere. Eta egia da, benetan horrelakoa zelako. Eta hitz horiek beraren lagunengandik etorriak izan diren kasoetan ez daukat zer esanik. Dena den, hainbat errepikatzean, susmoa hartu dut gure etsaien hitzetan diskurso hori aho biko ezpata ez ote den, nolabait bigarren helburu bat adierazi nahi dutelarik, gelditzen direnak beren erradikalkeria ezertarako gai ez bailiren eta Santiren «bidea» hartuz bigundu egin beharko baiginen.

Izan dira, ordea, barrikadaren alde berean egonik eta Santi ondo ezaguturik, pertsona heldu eta argiaren gogorraz mintzatu direnak ere. Hala nola Itziar Aizpurua, Lekeitioko itsasoarekin konparatzean, itsasoaren haserrearen norainokoaz mintzatu denean. Hala nola Jean Louis Davantek euskaldunok erraz

ulertzen dugun banaketa horren sakona adierazi digunean, gogortasuna eta gogorkeria gauza bera ez direla gogoratu digunean alegia. Edo eta Abiraneta Santiren gizontasunaren burdinaz zuzendu zaigunean.

Ni ere ados nago horretan. Santi gogorra izan zen bere jarrera koerentea mantentzen, gogorra izan zen le mari ongi eutsirik norabide zuzenean txalupa gidatzeko, gogorra izan zen egoera jasangaitz honetan ez esteko, gogorra izan zen euskaldunon arrazoi zuzenak beren gordintasunean adierazteko.

Oraindik gogoan dut duela urtebete Madrilén ginela, espainolen erregeari Eusko Gudariak kantatzeagatik epaitzen gintuztela, fiskalaren galderei zeinen tinkotasunez erantzun zien. Arrazoiaren indar bortitzez sinetsiezadazue, juezak berak ere harritu, beldurtu egin zirela gizon haren gogortasunaz, ia-ia firme jarri bait zituen, galdetua izatetik galdetzaile izatera pasatuz. Hain bait zen gogorra erakutsi zuen arrazoiak!



J.R. ETXEBARRIA

Izan ere, gogorra behar da, saldukerien artean, errazkerien artean, euskal nazioaren alde agertzeko. Ez dira garaia bigunak horretan dihardugunontzat. Gizon-emakume gogorrek behar ditugu, etsaiaren gogorkeriari gure gogortasunaz erantzunik irabazteko aukera gero eta hobe izango dugulakoan. Eta gogortasunez joan beharko dugu aurrerantz etorriko diren une latzetan errepresioari erantzutean eta bai elkarrizketa bideratzean ere.

Beste gauza askoren artean, horretan ere, gogortasunean, zerkasi ederra utzi digu Santik. Bai horixe!